

UDALERRIAN GIZARTE, KULTURA, KIROL, BERDINTASUN ETA LEHEN SEKTOREAN DIHARDUTEN ELKARTEENTZAT ALONSOTEGIKO UDALAK EMATEN DITUEN DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ALDATZEA

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke.

Alkatetzaren 2026ko uztailaren 28ko 2026/609 Dekretuaren bidez onartutako deialdiaren iragarki hau argitaratzen da, gizarte, kultura, kirol, berdintasun eta lehen sektorean diharduten Alonsotegiko elkarteentzat sustatzeko laguntzen deialdiari buruzkoa.

SARRERA

Deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzak Alonsotegin egoitza sozial edo establezimendu iraunkorra duten elkarteentzat dira. Helburua dute irabazi-asmorik gabeko elkarteek antolatutako programak eta/edo jarduerak finantzatzea, batez ere udalerriko herritarrei zuzenduta daudenak; izan ere, erakunde txiki horiek ez dute berezko langilerik eta boluntarioen lanari esker funtzionatzen dute gehienbat. Bestalde, Udal honek badaki laguntza publikoen xedea, hau da, irabazi-asmorik gabeko erakundeen ohiko funtzionamendutik eta jardueretatik eratorritako gasturen bat finantzatzea, guztiz ezinbestekoa dela erakunde eskatzaileen biziraupenerako. Azkenik, kontuan hartu behar da talde horiek antolatzen dituzten jardueren garrantzia, udalerrian elkarrekin bizirautea ahalbideratzen baitute, eta hori da, hain zuzen ere, aurrerabideko edozein gizarteren zutabeetako bat.

II. FINANTZIAZIOA ETA DIRULAGUNTZA-LERROAK

Deialdi honek honako dirulaguntza-lerro hauek ezartzen ditu 2026an garatuko diren jarduerentzat eta pro gramentzat:

1. lerroa: Gizarte-arloko dirulaguntzak

Finantzazioa 2026ko ekitaldirako 6.000 €-ko gehieneko aurrekontu-kreditu baten kargura egingo da, 23100 48100 aurrekontu-partidaren kargura.

2. lerroa: Kultura-arloko dirulaguntzak

Dirulaguntza lerro hori kulturaren sustapenarekin eta promozioarekin lotutako jarduerentzat da, eta 33400 48100 aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko da, gehienez ere 4.000 €-ko aurrekontu-kredituarekin.

3. lerroa: Kirol-arloko dirulaguntzak

Deialdi honen helburuak betetzeko, finantzaketa 33400 48100 aurrekontu-partidaren kargura egingo da, gehienez ere 27.000 €-ko aurrekontu-kredituarekin.

III. ERAKUNDE HARTZAILEAK

Egoitza soziala edo establezimendu iraunkorra Alonsotegin duen edozein pertsona juridiko izan daiteke deialdi honetako dirulaguntzen onuradun, baldin eta elkarte izaera badu eta, oinarri hauetan jasotzen diren irizpideen arabera, Alonsotegiko udalerrarentzat interesgarria izan daitekeen eta diruz lagun daitezkeen eremuetako jardueraren bat egin nahi badu. Horrela, Alonsotegiko Udalak deialdi honetan diruz lagun daitekeen edozein esparrutan egindako jarduerak handitu, osorik hartu edo ordeztu ahal izango ditu.

Era berean, dirulaguntza arruntan onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, ondasun-erkidegoak edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereizi, baldin eta, nortasun juridikorik izan ez arren, egoitza soziala Alonsotegin badute eta dirulaguntza ematea eragin duten eremuetan proiektuak edo jarduerak egin baditzakete.

Eskatzailea elkarte edo fundazio bat bada, Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan eta Alonsotegiko Erakundearen Udal Erregistroan erregistratuta egon beharko du.

IV. DIRULAGUNTZAREN MODALITATEA

Oinarri hauetan jasotzen diren dirulaguntzek ohiko edo urteko izaera dute eta erakunde eskatzailearen ohiko funtzionamendu-programaosatzen duten eta urtean zehar garatzen diren jarduerak babestea eta sustatzea dute helburu.

V. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Informazioa eta eskabide-inprimakia udaletxeko web-orrian ere egongo dira eskuragarri (<https://www.alonsotegi.net/eu-ES>). Eskabideak aurkezteko epea urte bakoitzeko otsaila izango da, hori BAOan argitaratzea beharrezkoa izan gabe. Salbuespen gisa, 2025eko epea apirillean izango da. Dena den, udaletxeko web-orrian eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen iragarriko da. Eskabideak telematikoki aurkeztuko dira Alonsotegiko udaletxearen web-orriaren bidez (www.alonsotegi.eus/tramites/solicitudsubvención).

Eskabideak egiteko deialdi honen I. eranskinean azaltzen den inprimaki normalizatua bete beharko da.

Eskabide-inprimakiarekin batera II., III. eta IV. eranskinetan azaltzen diren inprimakiak behar bezala beteta aurkeztu beharko dira, bai eta hurrengo atalean zerrendatzen den dokumentazioa ere.

Arestian aipatutako epeaz kanpo aurkezten diren eskabideak zuzenean atzera botako dira eta artxibatu egingo dira bestelako izapiderik gabe.

VI. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- Elkartearen datu orokorrak eta IFZ. (I. ERANSKINA)
- Jarduera guztiak deskribatzen dituen memoria, baloratu daitekeen informazio guztia adierazita. (II. ERANSKINA)
- Aurrekontu xehatua; aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak zehaztu behar dira. (IV. ERANSKINA)
- Beste administrazio publikoei edo pribatuei jarduera finantzatzeko eskatutako eta haietatik jasotako dirulaguntzen zerrenda.
- Hirugarrenaren Alta inprimakia.

VII. ESKABIDEAK BAZTERTZEA

Ez dira kontuan hartuko epez kanpo aurkeztutako eskabideak, ez eta Alonsotegiko Udalaren azalpen-memoria eta/edo justifikazioa aurkeztu gabe duen erakundeak egindakoak ere.

Halaber, azken 5 urteetan itzultze-espedita irmoa duten erakundeek aurkeztutako eskabideak atzera botako dira.

VIII. OSATUGABEKO EDO AKASTUN ESKABIDEAK

Aurkeztutako eskabidea edo atxikitutako dokumentazioa osatu gabe badago edo zuzendu daitekeen bestelako akatsen bat badu, eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko, gehienez ere 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko da.

IX. NORGEHIAGOKA

Deialdi honen bidez deitzen diren dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenaren bidez emango dira. Hau da, aurkeztutako eskabideak ebaluatzen dira, eta, ondoren, eskabideen arteko hurrenkera ezartzen da, deialdi honetan jasotzen diren balioespen-irizpideen arabera.

Hala ere, dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da dirulaguntzen ebazpena ematen den unean.

X. BALIOESPEN-IRIZPIDEAK

Balioespen-irizpideak elkarteari dagozkion irizpideetan eta jarduerari edo proiektuari dagozkion irizpideetan banatzen dira. Proiektu edo jarduerari dagokionez, dirulaguntza-lerroaren arabera bereizten dira.

A. ELKARTEARI DAGOZKION IRIZPIDEAK (GEHIENEZ 51 PUNTU)

1.- Udalerriko programetan edo jardueretan laguntzea: gehienez 5 puntu gehienez 5 puntu

-2 programa edo jarduera: 2 puntu

-3 programa edo jarduera: 3 puntu

- 4 programa edo jarduera: 4 puntu

- - 5 programa edo jarduera edo gehiagi: 5 puntu

2.- Elkartearen sorrera urtea, zenbat urtetan mantendu eta errotu den udalerrian, etenik gabe: gehienez 4 puntu

- 1 urtetik 5 urtera: 1 puntu
- 6 urtetik 10 urtera: 2 puntu
- 11 urtetik 49 urtera: 3 puntu
- 50 urtetik aurrera: 4 puntu

3.- Bazkide-kopurua: gehienez 5 puntu

- 25 pertsona arte: 1 puntu
- 25 eta 50 pertsona artean: 2 puntu
- 50 eta 100 pertsona artean: 3 puntu
- 101 eta 200 pertsona artean: 4 puntu
- 200 pertsona baino gehiago: 5 puntu

4.- Bi sexuen ordezkaritza orekatua zuzendaritza-batzordean: gehienez 5 puntu

- Bi sexuak ez dira ordezkutzen: 0 puntu
- % 30 emakumeak eta % 70 gizonak zuzendaritza batzordean (edo alderantziz): 3 puntu
- % 40 emakumeak eta % 60 gizonak zuzendaritza batzordean (edo alderantziz): 4 puntu
- % 50 emakumeak eta % 50 gizonak zuzendaritza batzordean: 5 puntu

5.- Euskararen erabilera: gehienez 12 puntu

- Ez da euskara erabiltzen: 0 puntu
- Jarduerak eta zabalkundea euskaraz egiten dira: 12 puntu

6.- Gastuak: gehienez 20 puntu

- 1 eta 3.000 euro artean: 1 puntu
- 3.001 eta 8.000 euro artean: 5 puntu
- 8.001 eta 15.000 euro artean: 15 puntu
- 15.000 eurotik gora: 20 puntu

B. AURKEZTUTAKO JARDUERARI EDO PROIEKTUARI DAGOZKION IRIZPIDEAK (gehienez 63 puntu)

1. LERROA: GIZARTE-ARLOKO DIRULAGUNTZAK

1. Programaren edo jardueren iraupena: gehienez 10 puntu

- a. Aldizkako jarduerak urtean zehar (gutxienez 3): 2 puntu
- b. 3 eta 6 hilabete artean: 4 puntu

- c. 6 eta 9 hilabete artean: 8 puntu
- d. 12 hilabete: 10 puntu

2. Zenbat kolektibori zuzenduta dagoen: gehienez 5 puntu

- a. 1 kolektibo: 1 puntu
- b. 2 kolektibo: 3 puntu
- c. Biztanleria orokorra: 5 puntu

3. Proiektuaren kalitate teknikoa: (15 puntu)

- Helburuak
- Jarduerak

4. Sareko lana udalerriko beste gizarte-erakunde batzuekin: gehienez 3 puntu

- a. Bakar batekin ere ez: 0 puntu
- b. Beste erakunde batekin: 1 puntu
- c. Erakunde batekin baino gehiagorekin: 3 puntu

5.- Behar handiena duten kolektiboetako jarduerak: gehienez 5 puntu (gizarte-bazterketa egoeran dauden kolektiboak, hirugarren adina, desgaitasuna duten pertsonak...)

6.- Lanaren hedapena eta ezarpena auzoetan (Arbuio, Ntro sñra de la Guía, San Antolin...): gehienez 5 puntu

- a. Jarduerak auzo batean egitea: 1 puntu
- b. Jarduerak bi auzotan egitea: 3 puntu
- c. Jarduerak hiru auzotan edo gehiagotan egitea: 5 puntu

7.- Biztanleria osoak parte hartzeko jarduerak, ez erakundeko bazkideentzat bakarrik: 10 puntu

8.-Jarduerak sare sozialen bidez hedatzea: gehienez 5 puntu

- 1 sare sozialen bidez: 1 puntu
- 2 sare sozialen bidez: 2 puntu
- 3 sare sozialen edo gehiagoren bidez: 5 puntu

9.- Jardueraren garrantzia udalerritik kanpo: 5 puntu.

2. LERROA: KULTURA-ARLOKO DIRULAGUNTZAK

1.- Programaren edo jardueren iraupena: gehienez 10 puntu

- a. Aldizkako jarduerak urtean zehar (gutxienez 3):
- b. 3 eta 6 hilabete artean: 4 puntu
- c. 6 eta 9 hilabete artean: 8 puntu
- d. 12 hilabete: 10 puntu

2.- Zenbat kolektibori zuzenduta dagoen: gehienez 5 puntu

- a. 1 kolektibo: 1 puntu
- b. 2 kolektibo: 3 puntu
- c. Biztanleria orokorra: 5 puntu

3.- Proiektuaren kalitate teknikoa: (15 puntu)

- Helburuak
- Jarduerak

4.- Sareko lana udalerriko beste gizarte-erakunde batzuekin: gehienez 3 puntu

- a. Bakar batekin ere ez: 0 puntu
- b. Beste erakunde batekin: 1 puntu
- c. Erakunde batekin baino gehiagorekin: 3 puntu

5.- Lanaren hedapena eta ezarpena auzoetan (Ntra. Sñra. de la Guía, San Antolin...):gehienez 5 puntu

- a. Jarduerak auzo batean egitea: 1 puntu
- b. Jarduerak bi auzotan egitea: 3 puntu
- c. Jarduerak hiru auzotan edo gehiagotan egitea: 5 puntu

6.- Biztanleria osoak parte hartzeko jarduerak, ez erakundeko bazkideentzat bakarrik: 10 puntu

7.- Jardueraren garrantzia udalerritik kanpo: 5 puntu.

8.- Beste udalerrri batzuetako jendea erakartzen duen jarduera: 5 puntu

9.- Ikusleentzat doakoak diren kultura-ikuskizunak: gehienez 5 puntu

- a. Bat ere ez doakoa: 2 puntu
- b. Denak doakoak: 5 puntu

3. LERROA: KIROL-ARLOKO DIRULAGUNTZAK

1.- Elkarateak ordaindu beharreko federazioaren fitxa-kopurua, aurreko urtearen abenduaren 1ean: gehienez 30 puntu

0,2 puntu federazioaren fitxa bakoitzeko.

2.- Sareko lana udalerriko beste gizarte-erakunde batzuekin: gehienez 3 puntu

- Bakar batekin ere ez: 0 puntu
- Beste erakunde batekin: 1 puntu
- Beste erakunde batekin baino gehiagorekin: 3 puntu

3.- Emakumeen kirolaren sustapena: gehienez 5 puntu

- Jarduera nagusiaren bidez bakarrik: 2 puntu
- Jarduera nagusiaren jarduera osagarrien bidez: 5 puntu

4.- Jardueraren garrantzia udalerritik kanpo: 5 puntu.

5.- Beste udalerri batzuetako jendea erakartzen duen jarduera: 5 puntu

6.-Jarduerak sare sozialen bidez hedatzea: gehienez 5 puntu

- 1 sare sozialen bidez: 1 puntu
- 2 sare sozialen bidez: 2 puntu
- 3 sare sozialen edo gehiagoren bidez: 3 puntu

7.- Ikusleentzat doakoak diren kirol-ikuskizunak: gehienez 5 puntu

- Lehiaketak ez diren ikuskizunak bakarrik: 2 puntu
- Ikuskizun guztiak: 5 puntu

8.- Kirol-jardueren jarduera osagarriak: gehienez 5 puntu

XI. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

1. Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta oinarriek ezarritako epean egiten direnak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak eskuratzeko kostua ez da inola ere merkatuko balioa baino handiagoa izango.

2. Egindako gastutzat hartuko da dirulaguntza arautzen duen araudian zehaztutako justifikazio-epea bukatu baino lehen benetan ordaintzen den gastua.

3. Diruz lagun daitezkeen gastuaren zenbatekoa Legeak kontratu txikirako ezarritako zenbatekoa baino handiagoa bada, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa hartu, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu aurretik, salbu eta merkatuan ez badago bere ezaugarri bereziengatik horiek egiten, mailegatzan edo hornitzen dituzten behar besteko erakunderik, edo gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada.

Jaso dituen eskaintzetatik zein aukeratu duen adierazi beharko du justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran, eta, aukeratu beharrekoa aukeratzeko, efizientzia eta ekonomiaren irizpideak erabiliko dira. Ez bada eskaintza merkeena aukeratzan, egindako aukera espresuki justifikatu beharko da memoria batean.

4. Ondasun inbentariagarriak erosi, eraiki, birgaitu eta hobetzeko kasuetan, arau hauek bete behar dira:

a) Onuradunak dirulaguntza emateko xede zehatzerako erabili beharko ditu ondasunak,, eta epe hori ez da izango bost urtetik beherakoa erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, ez eta bi urtetik beherakoa ere gainerako ondasunen kasuan.

Erregistro publikoan inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, eskrituran adierazi beharko da hori hala dela; halaber, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa ere adierazi beharko da, eta datu horiek dagokion erregistro publikoko inskripzioan ere agertu beharko dira.

b) Aurreko paragrafoan aipatutako helburuzko betebeharrak hori ez betetzeak (betiere ondasunaren besterentzearekin edo kargarekin gertatuko da hori) berekin ekarriko du itzulketa egin behar izatea. Ondorioz, itzulketa ordaintzeari atxikita geratuko da ondasuna, ondasun hori daukana edozein izanda ere, salbu eta erregistroko fede publikoak babesten duen hirugarren bat bada edukizale hori edo justifikatzen bada ondasunak fede onez eta bidezko tituluz eskuratu direla edo, ondasun higigarri inskribaezinen kasuan, merkataritza- edo industria-establezimendu batean eskuratu direla.

5. Egoera hauek gertatzen direnean, ez da ulertuko 4. zenbakiko helburuzko betebeharra ez dela betetzen:

a) Erregistro publiko batean inskribatu ezin diren ondasunen kasuan, ondasun horien ordezkari dirulaguntzak zeukan xedea baldintza berberetan betetzeko balio duten beste ondasun batzuk inskribatzea, eta erabilera horri eustea horretarako ezarritako aldiak iraun bitartean; betiere dirulaguntza eman zuen administrazioak baimentzen badu ordezte hori.

b) Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, administrazio emaileak baimentzen duenean ondasunaren erabilera aldatzea edo ondasuna besterendu edo kargatzea. Kasu horretan, ondasuna eskuratzen duenak hartuko du bere gain ondasunen helburuzko betebeharra, gainerako denborarako; eta, helburu hori bete ezean, bai eta dirulaguntza itzultzeko betebeharra ere.

6. Amortizazio-gastua dirulaguntza jaso dezakeen gastutzat hartu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Dirulaguntzek ondasunak erosten lagundu ez izana.

b) Amortizazioa eskuarki onartutako kontabilitate-arauekin bat etorriz kalkulatzeko.

c) Dirulaguntza jaso dezakeen aldikoa bakarrik izatea kostua.

7. Diruz lagundutako proiektua egiteko finantza-gastuak, lege- edo finantza-aholkularitzako gastuak, notario- eta erregistro-gastuak eta peritu-gastuak nahiz administrazio-gastu bereziak diruz laguntzeko modukoak izan daitezke, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zerikusi zuzena badute eta jarduera hori egoki prestatu edo gauzatzeko ezinbestekoak badira, eta betiere hala jasota baldin badago oinarri arautzaileetan. Salbuespen modura, banku-bermeei dagozkien gastuek ere jaso ahal izango dute dirulaguntza, aukera hori berariaz aurreikusten badu dirulaguntza arautzen duen araudiak.

Inolaz ere ez dira diruz lagunduko honako hauek:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekaratuak eta zehapen administratibo eta penalak.
- c) Prozedura judizialak eta gastuak.

8. Tributuak dirulaguntza jaso dezaketen gastuak dira, baldin eta dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen baditu. Zeharkako zergak ez dira inoiz hartuko dirulaguntza jasotzeko moduko gastutzat, berreskuratu edo konpentsatu baldin badaitezke. Norberaren errentaren gaineko zergak ere ez.

9. Zeharkako kostuei dagokienez, eskuarki onartutako kontabilitate-arau eta printzipioen arabera arrazoizkoa den zatia egotziko dio diruz lagundutako jarduerari onuradunak, eta betiere kostu horiek jarduera benetan egiten den aldiari dagozkion neurrian.

XII. IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Eskaerak onartutzat hartzen direnean, teknikari sozio-kulturalak horren berri emango du eta Kultura Batzordeak irizpena eman beharko du. Batzordeak ebazpen-organismoari helaraziko dio ebazpen-proposamena.

Alkate-udalburua izango da oinarri espezifiko hauetan jasotako dirulaguntzak emateko organoa.

XIII. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Elkarte bakoitzak jaso beharreko zenbatekoa honela kalkulatu da: dirulaguntzaren lerroaren zenbateko osoa zati lerro horretan dirulaguntza eskatzen duten elkarte guztiek lortutako puntuak.

Alonsotegiko Udalak ematen dituen dirulaguntzak bateragarriak izango dira administrazio publiko edo erakunde pribatuek emandako beste dirulaguntza batzuekin; baina inola ere ez da gainfinantzaketarik izango.

Dirulaguntza bi alditan ordainduko da:

- Emandako zenbatekoaren % 80 prozeduraren ebazpena eman ondoren.
- Zenbatekoaren % 20 emandako dirulaguntza justifikatu ondoren.
-

XIV. ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak aurkeztutako proiektua gauzatzeko betebeharra izango du, bai eta oinarri hauetan, dirulaguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzan eta dirulaguntza publikoen arloan indarrean dauden gainerako arauetan ezarritako xedapenak betetzekoa ere.

Erakunde eskatzaileari gogorarazten zaio, dirulaguntza jasotzen badu, derrigor aipatu beharko duela Alonsotegiko Udalaren babesletza diruz lagundutako jarduera dela-eta egiten diren promozio-elementuetan, karteletan, testuetan edo dokumentuetan, betiere kartelak jartzeari buruzko udal-araudia betez. Gainera, jardueraren publizitatean jasotzen den testua bi hizkuntza ofizialetan agertuko da.

XV. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

Onuradunen betebeharretako bat izango da Alonsotegiko Udalaren aurrean justifikatzea jasotako dirulaguntzaren xedea.

Emandako dirulaguntza justifikazioko kontuaren bidez justifikatuko da, zeinak, oro har, honako dokumentu hauek jasoko dituen:

1. Jarduketaren justifikazio-memoria, dirulaguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena. Zer jarduera gauzatu diren eta zer emaitza lortu diren adierazi behar dira. (Parte-hartzaileen kopurua, eguna eta tokia...)

2. Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa. Honako hauek jasoko ditu:

a) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, igorpen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data identifikatuta. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, izandako desbideratzeak adieraziko dira.

b) Aurreko paragrafoan aipatzen den zerrendan jasotako fakturak edo dokumentuak, merkataritzako trafiko juridikoan frogabaliokidea edo eraginkortasun administratiboa dutenak, eta, hala badagokio, ordainketen egiaztagirak.

c) Ondasun higiezinak eskuratuz gero, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta eta behar bezala egiaztatuta dagoen tasatzaile independente baten ziurtagiria.

d) Hala badagokio, a) atalean aipatzen den zerrendan jasotako kostu orokorrak edota zeharkakoak banatzeko irizpideen adierazpena, salbu eta dirulaguntza arautzen duten oinarriek oroharreko zenbateko baten bidez konpentsatzea aurreikusi dutenean, justifikatu beharrik gabe.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

f) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 31.3 artikulua betetzeko, onuradunak eskatutako hiru aurrekontuak.

g) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko soberakinen kasuan, bai eta horietatik eratorritako interesenak ere.

3. Froga gisa balio duten dokumentuen aleak, besteak beste, esku-programak, kartelak, argazkiak, argitalpenak edo jarduera horretarako egindako beste edozein dokumentazio grafiko. Dokumentu horietan adierazi beharko da jarduerak Alonsotegiko Udalaren dirulaguntza jaso duela.

4. Gastuak justifikatzeko, fakturak eta froga-balio baliokidea duten bestelako agiriak aurkeztuko dira. Horiek guztiek merkataritzako trafiko juridikoan baliodunak izan behar dute edo eraginkortasun administratiboa eduki behar dute.

5. Dirulaguntza 6.000 eurotik gorakoa bada, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izanaren egiaztagiria.

Justifikazioa aurkezteko azken eguna urte bakoitzeko urtarrilaren 31 izango da.

Alonsotegiko Udalak ahala izango du erakunde onuradunaren finantza egiaztatzeke beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak egiteko, kanpo- eta barne-auditoretzak barne.

XVI. DIRULAGUNTZA ITZULTZEA

Jasotako laguntza udal-kutxetara itzuli beharko da, dirulaguntza ordaintzen den unetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesekin batera, honako kasu hauetakoren bat gertatzen bada:

- Emandako zenbatekoa ez erabiltzea eskatu zen xede zehatzerako.
- Dirulaguntza jasotzea horretarako ezarritako baldintzak bete gabe.
- Oinarri hauek eta indarrean dagoen udal-ordenantza aplikatzean bere gain hartutako betebeharrak ez betetzea, baldin eta onuradunari egotzi ahal bazaizkio.
- Gainfinantzaketa gertatzea, jarduera egiteagatik sortutako gastu errealekin lotuta jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa ikusita.
- Aurreko puntuan ezarritako baldintzetan justifikatzeko betebeharra ez betetzea.
- Gastuak zati batean justifikatzea; kasu horretan, justifikatu gabeko gastuari dagokion kopurua itzuli egin beharko da.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako gainerako kasuak.

Itzuli beharreko zenbatekoa, osoa edo zati bat, zehazteko, aintzat hartuko dira, edonola ere, proportzionaltasun- eta ekitate-irizpideak; horretarako, kasu zehatz bakoitzaren inguruabarrak aztertuko dira.

Itzulketa eskatzeko ebazpena dirulaguntza eman zuen organo berak emango du.

Itzulketa-espeditenteak bat egingo du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen VI. tituluan ezarritako prozedura-arauekin. Prozeduran, bestalde, entzunaldi-izapidea emango zaio interesdunari, 15 egun balioduneko epean.

Halaber, aintzat hartuko da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 1eko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren II. eta IV. tituluek ezarritakoa, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluak ezarritakoa ere.

APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

Oinarri arautzaile hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa bete beharko da:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa
- Dirulaguntzei buruzko udal-ordenantzak
- Datu pertsonalen babesa
- Alonsotegiko Dirulaguntzen IV. Plan Estrategikoa
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeakoa.

Alonsotegin, 2026ko uztailaren 28an.

Alkatea

Unai Arregi Gardoki